


B. "KILOMETROAK" IBILBIDEA

Ibilbide hau Uliia mendian dagoen Zurriola Ikastolak 2009an antolatuzuen Kilometroak jaia ospatzeko diseinatu zen; seinale berde eta zuriz dago markatuta.



1. Interpretazio-zentroa
2. Talaiaak
3. Chalet de las Peñas

4. Arte aleak
5. Kutralla
6. Galtzada

7. Egurrezko begiratokia
8. Begiratokia
9. - 10. Bidexka eta basoa

Uliako aparkalekutik abiatuko gara, basoan gora, berdez eta zuriz markatutako bidexka jarraituz. Bidea **Interpretazio-zentroaren (1)**, azpitik pasatzen da, inguratu egiten du, eta ezkererantz segituz Uliako merenderora iritsiko gara, garai bateko uso-tiroa. Handik gertu antzinako hiru **talaia (2)** daude; bertatik begiztatzen zituzten baleak, eta geroago begiratoki bihurtu ziren.

Bertatik jaisten hasiko gara, eta berriztatutako dorre 3 baten ondotik pasatu, errota itxura dauka eta garai batean Casa rústica edo **Chalet de las peñas (3)** izeneko jatetxea hartu zuen. Bidexka jarraituz hainbat **arte ale (4)** aurkituko ditugu (*Quercus ilex subsp. Ilex*), parke honetan urria den haritz mota.

Bidexkatik jaisten bidegurutze batean agertuko gara; gune irekiagoa da eta itsasoa ikus dezakegu bertatik. Eskumarantz egingo dugu marka berde eta zuriak jarraituz. Lepazuria

(*Martes foina*) bezalako mustelido txiki batzuk, gau-ohituretako karniboroa, arrastoak uzten dituzte bideetan, beren lurraldea markatzeko. Aurrerago basoan sartuko gara **Kutralla (5)** izeneko garai bateko harraska batera ailegatu arte. Inguru itzaltsua da, non iratze eta briofito ezberdinak hazten diren.

Bidexkatik jaitsiko gara bihurgune batera ailegatu arte eta ezkererantz joko dugu. **Galtzada (6)** batetik jaitsiko gara hondar-harkaitz handi batzuen azpitik. Galtzada hau, antzina, harrobietako materiala Monpaseraino mandoekin garraiatzeko erabiltzen zen. Galtzada amaitzen den bihurgunera iristerakoan, ezkererantz aldentuz, **egurrezko begiratoki (7)** batera ailegatuko gara, eta bertatik ikus daiteke kaio hankahorien (*Larus michahellis*) habiaraketa eremua.

Bidexka itsasoarekiko paraleloa da eta malda txikiak jaitsi eta aldapa txikiak igotzen ditu. Eremu **(8)** honetatik **Monpaseko bateria** ikus daiteke; Espainia eta AEB-k aurrez aurre jarri zituen Kubako gerran (1898) Gipuzkoako kostaldea babesteko eraiki zuten, eta militarrek Donostiako udaletxeari eman zioten 1939an. Bidexkaren bi aldeetan **txilardi-otadi (9)** landareak ageri dira, hala nola ote zuria (*Ulex europaeus*), eta baita txilar espezieak ere (*Calluna vulgaris*, *Erica vagans*).

Puntu horretan bidexka bitan banatzen da eta gorantz egingo dugu, Pasaiara eramango gintuzten marka gorriak eta zuriak alde batera utzita. Pixkanaka begetazioa aldatuz doa eta **baso (10)** batean sartuko gara; bertan aurkituko ditugu **ametza** (*Quercus Pyrenaica*), **gaztaina** (*Castanea sativa*) eta **urkia** (*Betula pendula*), eta isiltasuna txorien kantuek hautsiko dute.

Azkenik, gorantz joaterakoan hasieran jarraitu dugun bidexkarekin elkartuko gara, interpretazio-zentroaren aurretik jaitsiz, aparkalekura ailegatu arte.